

zen lekuan. Gaur, ordea, geure gustokoak ez diren oihu batzu edo gutuneko esaldiren bat nahikoa arrazoi dira, giza eskubideen alde zertxobait egiteari ere («ni kontra nago, baina») zaputz egiteko.

Estradiziorik ez, eta kitto. Horren kontra eginahalak egitea tokatzen da orain. Gure beste diferentziak eztabaidatuko ditugu bihar.

Estradizioen alde eta estradizioen kontra egon liteke. Baina kontra bagaude, zinez kontra, zenbait akats posiblek ez dio deus axola. Ez da estetika-kontua. Estraditutua izateko arriskuan dagoenarena da, balio duen perspektiba bakarra. Beste askorekin elkartuta egin behar dena ez zaiola gustatzen eta, egiteari uzten dionak, izango du mila arrazoi handi, baina eskaintza miserable hauxe du azken finean: ezer ez duela egin. Ez zaizkigu interesatzen horren arrazoiak. ■ G. Noss.

«La Voz de Euskadi» kinka larrian

«Crónica de una muerte anunciada» idatz dezake norbaitek, hainbeste aldiz iragarri bait da egunkari honen heriotza. Heriotza hori ez da gertatu orain artean. Badirudi, ordea, oraingoan ez dabilela urruti. Izan ere, egun pare bat kalera gabe egon ondoan, urriaren 30ean periodikoak berak agertu zuen oharrak ez du gauza onik adierazten, gaitz serioren bat salatzen du inondik ere. Egunkariak berak egin diagnostikoa ezin txarragoa da: finantziazio-falta eta errekurtsorik eza. Aspirinak sendatzeko moduko gaitza ez da.

Ekonomikoa da, beraz, arazoa. Baina goragoko arazo eta arrazoiren ondorio omen da. Egunkariari sinestekotan, hona: «el veto impuesto por un partido político vencedor en las pasadas elecciones legislativas». Izan ere, «los socialistas apuestan por el control de los medios de información de la misma manera que los franquistas imposibilitaban el nacimiento de una prensa hostil a sus proclamas autoritarias». Betoa eta kontrola.

Analisi honekin bat nator osoki. Ondorioa ere begien bista-koa da eta, zoritxarrez, berriro ere orain frogatua, alegia, prentsaren independentzia utopia dela kondizio hauetan. Talde politiko eta ekonomikoetatik aske lan egitea zen *La Voz*-en apustua. Urte t'erdiren buruan porrota aitortu beharrean aurki-

tzen da. Ez bide du independentzian irauterik. Pena da. Ongi etorria opatzerakoan idatzia berrirakurri dut orain: independentzian ikusten nuen Akileren orpoa. Bai gertatu ere!

La Voz-en krisiaren edo iragarritako heriotzaren irakurketa-rik jatorrena seguruenik hauxe da: irakurketa politiko-ekonomikoa. Baina ez dela osoa eta bakarra iruditzen zait. *La Voz*-ek ez du bere publikoa sortu eta mantendu. Auzia, horrela, ez da agente publikoaren laguntza soilez konpontzekoa, agian. *La Voz*-ek ez du jakin bere barrutia egiten, inguruko egunkariei irakurleak kentzen, irakurle berriak lortzen, bere leku berezi eta propioa ezartzen. Ez du jakin edo ezin izan du.

La Voz-en krisiaren diagnostikoan beste aldagai asko dagoe-la azpimarratu nahi dut, ez besterik. Arazo politikoak ziur badirela. Baina arazo periodistikoak ere bai, nola ez.

Baina kasu! *La Voz* ez da oraino hil. Bizi-aztarnarik dueino utsi diezaiozun esperantzari, gaitzaren larritasunak sendaezina badirudi ere. ■ *Joan Altzibar*.

AEB eta Nikaragua: bi hauteskunde-mota

AEBak dira liberalismoaren eta teknologiaren inperioa; horiekin liluraturik dabilenak hara jotzen du. Nikaragua da herri-iraultzaren eta eskulanaren lurraldea: hainbat lagun hurbildu da urte hauetan Nikaraguara herrien askapen-esperantza edatera, borroka bizitzera eta bere eskuen laguntza eskaintzera.

Bi eredu eta bi irudi: nabarmen gelditu dira azaroaren hasierako hauteskundeetan. Bi egunen aldeaz ospatu dira: 4ean Nikaraguan; 6an AEBetan. Nork ez du bien arteko konparazioa egin? AEB: 233 milioi biztanle (174 milioi botuemaile); Nikaragua: 2.300.000 biztanle (1.700.000 botuemaile). Ehunetik baterako aldea. AEBetan 330.000 milioi pezeta gastatu dira hauteskundeetarako kanpainan; Nikaraguako kanpaina zuhurra izan da benetan gastuetan. Gaur, asteazkena, badakizkigu atzo AEBetan egindako hauteskundeek eman dituzten ondorioak, bertako potentzia elektronikoa dela bitarteko; Nikaraguan igandean ospaturiko hauteskunderen ondorioak, ordea, ez ditugu oraindik beren osotasunean ezagutzen. Nork ez ditu alde-eratu alde bateko aparatutzar elektronikokoak, egunkarietan agertu den Nikaraguako ministraritzaren arbeltzararekin, non gizon